# ELKARGOAK EUSKARAZ

37 Jakizu | 2023ko memoria - LanguagesLaneanKongresua - Euskararen Historia | 2024
*Memoria del 2023 - Congreso Languages Lanean-Historia del Euskera* | Urtarrilak 23

## EUSKARA PLANEN EMAITZA

Ongi Etorri, 2024! Ezer baino lehen, pixka bat atzera egingo dugu egin ditugun aurrerapausoak ikusteko. Horretarako, urtero egiten dugun memoria prest daukagu, 2023koa. Elkargo guztion artean %3 igo dugu euskara indizea, zorionak guztioi! Eta bereziki, zorionak Jarduera Fisikoko elkargoari, %14 igo dutelako indizea!

Gainera, igoera handia izan dugu euskara ikastaroetan: 58 elkargokide eta elkargoetako langile ari dira ikasten orain, iaz ikastaroa amaitui zuten 35 ikasleen aldean. Kasu honetan, Bizkaiko Gizarte Langintza zoriondu behar dugu, 58 horietako 18 elkargo horretakoak direlako.

## RESULTADOS DE LOS PLANES DE EUSKERA

¡Bienvenido, 2024! Antes de nada, retrocederemos un poco para ver los avances que hemos hecho. Tenemos preparada la memoria anual de 2023. Entre todos los colegios hemos subido un 3% el índice de euskera, ¡zorionak a todos! Y en especial, al colegio de Actividad Física y Deportes por haber subido el índice un 14%.

También hemos experimentado un importante incremento en los cursos de euskera: se han apuntado 58 personas frente a las 35 que finalizaron el curso el año pasado. En este caso hay que felicitar al Colegio de Trabajo Social de Bizkaia porque 18 de esas 58pertenecen a este colegio.



| ZAZPIGARREN PUNTUA<br>Galderak eta eskaerak (Bideoan 2:43:40) | SÉPTIMO PUNTO<br>Ruegos y Preguntas (Aprox. 2h 43' 40") |
|---|---|
| Juan Ignacio de la Rosak hartu du hitza, eta Bizkaiko Zuzendaritza Batzordeari eskatu dio lantalde bat osa dezala Eusko Jaurlaritzaren Bizigarritasunari buruzko Dekretuaren baldintzak aztertu eta hobetzeko; izan ere, dekretua aztertu ondoren adierazi du zenbait kontraesan, zehaztasun falta eta abar detektatzen direla, eta horiek aplikatzea zailtzen dutela. Asier Benavidesek erantzun du Eusko Jaurlaritzak maiz egiten diren galderen zerrenda argitaratuta duela, baina Ordezkaritzatik Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzea proposatu du, zerrenda hori eskatzeko eta azalpen hitzaldi bat proposatzeko. Juan Ignacio de la Rosak interpretazio horiek idatziz eta lotesleak izatea eskatzen du. Elkargokideek identifikatutako desadostasun horiek bildu ahal izateko, denak batera Eusko Jaurlaritzari helarazi ahal izateko. | Toma la palabra Juan Ignacio de la Rosa quien solicita a la Junta Directiva de Bizkaia que formara un grupo de trabajo para analizar y mejorar las condiciones del Decreto de Habitabilidad de Gobierno Vasco dado que desde su análisis previo del mismo indica que se detectan una serie de contradicciones, falta de concreción, etc que dificultan su aplicación. Responde Asier Benavides indicando que Gobierno Vasco tiene publicado una lista de preguntas frecuentas, pero se propone contactar desde la Delegación con Gobierno Vasco para solicitar dicho listado, proponerles una charla aclaratoria pro su parte. Juan Ignacio de la Rosa solicita dichas interpretaciones por escrito y que sean vinculantes. Para poder recopilar esas discrepancias identificadas por los colegiados para poder dar traslado conjunto de todas ellas a Gobierno Vasco. |

**AKTAK - ACTAS**




**WEBGUNEAK - PÁGINAS WEB**




**INPRIMAKIAK - IMPRESOS**




**ZUZENKETAK - CORRECCIONES**

*2023an egindako zenbait hobekuntza*

Gainera, 4 prestakuntza pilula prestatu dira euskaraz lan egiteko (intraneta ikusi) eta iaz baino testu gehiago zuzendu eta itzuli dira: 48.606 eta 125.897 hitz, hurrenez hurren.

Honekin guztiarekin, berriz ere zoriondu nahi ditugu parte hartzen ari diren elkargoetako langile eta elkargokideak baina oraindik hobetzeko asko daukagula ere esan behar dugu. Animo!

*Algunas mejoras realizadas en el 2023*

Además, se han preparado 4 píldoras formativas para trabajar en euskera (ver intranet) y se han corregido y traducido más textos que el año pasado: 48.606 y 125.897 palabras, respectivamente.

Con todo ello, queremos felicitar nuevamente a los trabajadores/as y colegiados/as de los colegios participantes, pero también decir que todavía tenemos mucho que mejorar. ¡Ánimo!

## LANGUAGES LANEAN BILTZARRA

Urtarrilaren 18 eta 19an egin da eta enpresari eta langile, bezero eta hornitzaileei zuzenduta egon da. Lan eremuko hizkuntzen erabilerari lotutako kezkak dituztenek gauza interesgarriak entzuteko aukera izan dute: nola eman bere lekua hizkuntza bakoitzari, nola zehaztu elkarren arteko bizikidetza egokia eta nola neurtu hizkuntzek duten balio ekonomikoa edota neurtezinak diren balio erantsiak.

## CONGRESOLANGUAGES LANEAN

Se ha celebrado este 18 y 19 de enero y ha estado dirigido a personas empresarias y empleadas, clientes y proveedores. Toda persona del ámbito laboral coninquietudes relacionadas con el uso de las lenguas ha podido escuchar temas interesantes, entre otros, cómo dar cabida a cada una de las lenguas, como determinar una convivencia adecuada, cómo medir el valor económico de ellas o los valores que no se pueden medir.

## EUSKARAREN HISTORIA

Euskararen Historiaren oinarriak lantzeko ikastaroa antolatu dute Altzon, bost larunbatetan goizez urtarrilaren 20tik martxora.

## HISTORIA DEL EUSKERA

En el municipio de Altzo han organizado un curso, cinco sábados a la mañana desde el 20 de enero hasta marzo.

https://www.galtzaundi.eus/euskararen-historiaren-oinarriak-lantzeko-ikastaroa-altzon/

ELKARGOAK EUSKARAZ BasquePro
basqueproeus@bm30.eus - 944 00 11 33 @elkargoeus
Bizkaia foru aldundia diputación foral
EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO